

# Hezkuntzarako Lankidetzak Praktiak:

## 2021eko uda

Komunikazioko Graduak:

KAZETARITZA

PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOAK

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

**2021eko UDA: 2021eko ekainaren 1etik abuztuaren 31 arte.**

Ohar hau zuzenduta dago Komunikazioaren arloko hiru graduetako (Kazetaritza, Publizitate eta Harreman Publikoak eta Ikus-entzunezko Komunikazioa) 3. eta 4. mailetako ikasleei, baldin eta 2021eko udarako, hezkuntzarako lankidetzak praktiken banaketan eta kudeaketan, enpresetan eta erakundeetan praktikak egitea eskatu nahi badute.

## Hauek dira eskaera egiteko eman behar dituzuen urratsak:

1. Ikasleak/Praktikak/Bekak webgunean sartu

<http://www.ehu.es/eu/web/gkz-csc/praktikak-bekak>

eta ondokoak jaitsi:

a) praktiken arautegia <https://www.ehu.es/es/web/enplegua/araudia>

b) eta praktikak eskatzeko orria

[http://www.ehu.es/documents/1760370/1882381/plantilla\\_general\\_practicas.pdf](http://www.ehu.es/documents/1760370/1882381/plantilla_general_practicas.pdf)

Irakurri arautegia. Zalantzarik izanez gero, hiru bide dituzu

zalantzak argitzeko:

Joan zaitetz dekanotzara, Patxi Doblasek bulegora.

Deitu telefono honetara: 94 601 2298

Idatzi helbide honetara: [patxi.doblas@ehu.es](mailto:patxi.doblas@ehu.es)

2. **2020eko apirilaren 6tik**, ikastegiak **2021eko praktikak egiteko tokien zerrenda** jasotzen duen aldizkaritxo prest eta erabilgarri egongo da. Aldizkaritxo hori "Ikasleak-Bekak/Praktikak" webgunetik deskargatu ahal izango duzu.

<http://www.ehu.es/eu/web/gkz-csc/praktikak-bekak>

3. Udako txandarako, praktikak egiteko eskaera orria entregatzeko epea,

**2021eko apirilaren 21 arte** izango da irekita. Orri hori

“Ikasleak/Bekak/Praktikak” webgunetik deskargatu ahal duzu.

**Orri hori emailez bidali Lolari. Emaila [lola.alonso@ehu.es](mailto:lola.alonso@ehu.es) da.**

4. Praktikak egiteko aukeratu dituzun tokiak eskaera orrian adieraziko dituzu lehentasunaren arabera zerrendatuta. **Ez dago mugarik.** Nahi adina toki jar ditzakezu eta lehentasunaren arabera zenbatuta. Tokiak espedienteko noten batez bestekoaren arabera banatuko dira.

5. Posta elektronikoz jakinaraziko zaizu zein toki esleitu zaizun. Tokiak banatzeko irizpidea espedientea izango da. Mezua posta elektronikoz iritsiko zaizue orrian jarritako UPV/EHUren helbide ofizialera. **Apirilaren 30tik udako praktikak eskatuko dituzten ikasleei.**

6. Praktikak egiteko esleitu zaizun tokitik jarriko dira zurekin harremanetan. **2021eko maiatzaren 4 eta 2021eko maiatzaren 20 artean praktikak eskatuko dituztenekin.**

Esleitu zaizun tokitik elkarrizketa, curriculum-vitae, lan book edo hangoek egoki jotzen duten proba egitea eskatu ahal dizute. !Komenigarri da aipatutakoa prestatuta izatea praktikak egiteko esleitutako tokiko hitzordua duzunerako.

7. Praktikak egiteko tokian onartzen bazaituzte eta zuk zeuk ere praktika eskaintza onartzen baduzu, jakinarazi ahal didazu mezu elektroniko bat hona bidaliz: [patxi.doblas@ehu.es](mailto:patxi.doblas@ehu.es)

Hala eginez gero, praktiken hitzarmena prestatzen hasiko gara.

**Posta elektroniko bidez egin beharreko baieztapena maiatzaren 22a baino lehen iritsi behar da.**

Prozedurarekin arazorik izanez gero, ondokoarengana jo ahal duzu:

Praktiken arduraduna:

Patxi Doblas

94 601 2298

[patxi.doblas@ehu.es](mailto:patxi.doblas@ehu.es)

Lan Ezarpenerako dekanordea

Gizarte!! eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

UPV/EHU